

BIDASOA - TXINGUDI

Hidronimia zehatz kokatzearen aldeko txostena

1998-05-25

Juan San Martin

Ez dut esan beharrik onomastikak berez ikerketarako adibideak eskaintzen dizkigula eta, horregatik, izenok ahal den erarik jatorrean gordetzea komeni zaigula.

Bidasoa hidronimoa antzinatik datorkigun izena dugu, ibaiaz gainera itsasadarrarentzat erabili dena. Antzinatik diot, zeren erromar geografoek aipatzen zuten *Oiasso* eta *Oearso* eskualdearen izena bere sustrai duenez gero. Txingudi, ordea, Hendaia toki jakin bat da. Eta orain, gure egunotako uste oker baten arabera, Bidasoaren lekua hartzen ari da.

Esan bezala, bata antzinatik dokumentaturik datorkigun hidronimoa da, itsasadar zein ibai, gaur oraindik mugaren bi alderdiak hartzen dituena; bestea, ordea, joan zen mendearen erdialdera arte dokumentatu gabea, orain Hendaia aldean golko jakin bati soilik deritzaiona, herri kaskoaren ifarraldean, ibaiaren Kanaletik harat, Gazteluzar ingurutik Zokoburu aldera irekitzen den golkoa, hain zuzen.

Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailak, Irun eta Hondarribia arteko Plaiaunditik Mendelu zehar Urdanibia aldera dijoan eskualdeari, Bidasoako natur ingurugiroa babesteko *Txingudi* izena eman zioenez, alde guzietan indartuz eta zabalduz dator *Txingudi*, *Bidasoa* izen jatorra goaren kaltetan. *Txingudi*-k berez hain oinarri jatorrik ez edukitzeaz gainera, Jaurlaritzako Sail horrek berari ez dagokion eskualdeko izena eman zion.

1998ko urtarrilean, arkeologo batek Irungo Amaia aretoan eman zuen hiztaldi batean zioen, erromarren garaian Tarraco-tik Txingudira bide bat zetorrela. Harrigarria benetan, astakeria ez bada, arkeologo bategandik hori entzun beharra, zeren erromarren garai hartan ez baitzen ezagutzen Txingudirik. Eskualde guziarentzat era jatorra *Oiasso* zenez, nondik datorren *Bidasso*. Gainera Erdi Arotik gure mendera arteko agerietan zein historia liburuetan hain ugari lekukotzen den izena dugu.

Izen aldaketa horrek oker handia ekar dezake Arkeologia, Historia, Hizkuntzalaritza, Geografia eta kulturari dagokienez. Jaurlaritzako kontseilari ba-

tek eman zion izen hori, Txingudiko erreserba naturalizat, Txingudirik ez zen tokian. Horregatik komeni da zuzenketa eskaria egitea. Aldi berean, Sail horri eta Irun-Hondarribia Udalarri dagokien *Txingudiko urak - Aguas de Txingudi* delakoarentzat ere bai. Txingudi, Hendaia aldekoa izatez gainera, han ez baita ez iturburu, ez errekarik. *Txingudiko urak - Aguas de Txingudi* bezala bataiatu dutenek ez zekiten edo ez ziren ohartu Hondarribirako lehendik Jaizkibel mendia iparraldean diren Iturraingo-erreka eta Artzu-errekatik hartzen zirela urik gehienak eta orain, bai Irunerako eta Hondarribirako, Irun eta Lesaka artean muga egiten duen eta Bidasoaren adar den Endara-errekakoak direla. Eta erreka hori Bidasoara sartzen den tokian oraindik izen zaharragoa mantentzen du, *Erdarlatsa*, “Endara-latsa” esan nahi duena. *Latsaren* tokia gerora latinetikako errekek hartu baitzuen.

Oker horren ondotik etorri dira bestelako ondorioak, Irun-Oiartzun mugen eskualdean ireki berri den *Alcampo* supermerkatuaren ondoan sortu den inguruguneari, eta bereziki han ireki diren zinema aretoei ere *Txingudi* izentzat jartzeaz.

Oiasso, *Oarso* eskualdea antzina dokumentatua da. Adibidez, beste zenbaitzunen artean, hala aipatzen zuten Estrabon, Mela eta Pliniok, duela bi mila urte. Gero, garai modernoetan ere hala zen Garibai, Moret, Oihenart, Henao, Isasti, Yanguas y Miranda, Madoz, Gorosabel eta gainerako historiagileentzat. Zer esanik ere ez urte batzuetan Hondarribian bizi izan zen Zaldibia Batxillerarentzat.

Joan zen mendera arteko nafar eta gipuzkoar historiagile guziek lehenago *Vidasoa* eta, gero lehen letra B-ra aldatuz, *Bidasoa*, soil-soilik erabili izan dute itsasadar eta ibaiari buruzko aipamenetan. Izen hori, lehenagotik zetorren hipotesi bati jarraituz, Julio Caro Barojak “camino (bide) de Oiasso” aipatzen zuen bere etimologiaz *Los pueblos del Norte de la Península Ibérica* (Madrid, 1943) liburuaren 93. orrialdean. Oroi Juan Ig. Iztuetak berak ere *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia* (Donostia, 1847) haren 121. orrialdean honako hau zioela: “Bidasoac esan nai du Euscaraz, bide Oeaso, edo Olearsoracoo”. Koldo Mitxelena ere horren aldeko zen. Ikus *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-en (1956, XII, 69-94. orr.) aldizkarian argitara eman zuen “Guipúzcoa en la época romana”. Baina haren ustez, 73-74. orrialdean hain argi adierazten zenez, latinetikako *Vía ad Oiasso*-tik zetorkeen. Jakina da *Oiasso* edo *Oiarso* euskarazko *Oihan* sustraian oinarritzen direla.

Iztuetak berak, aipatu dudan liburu horren zortzigarren kapituluko 120-124. orrialdeetan, oso ongi adierazten dizkigu Bidasoa ibaia bere Nafarroako sorburutik ezker-eskubi, bi alderdien inguruak itsasoan sartzera arte, baina *Txingudi* izenenaren aipamenik ez dakar. Horiez gainera, historiaz asko zekiena genuen Martin Hiribarren azkaindar idazleak *Eskaldunac* (1853) poema libu-

ruaren 94-95. orrialdeetan Bidasoari eskaintzen dizkion goramenak irakurgarriak dira.

Hainbeste urtez Hondarribia eta Irungo Udal artxibategien arduradun izan zen Serapio Mujikak ere ez du aipatzen *Txingudirik* bere *Monografía histórica de la Villa de Irún* (1903) eta *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Vol. *Guipúzcoa* (1910-1916) liburu bikainetan; zein batean zein bestean, ez inguruen adierazpena egitean eta ez gainerakoan.

Esan dudan bezala, *Txingudirik* ez da agertzen dokumentaturik oso berandura arte. Oraingo *Txingudi* hidronimo hau Hendaian kokatzen da, Pierre Loti idazlea bizi eta bertan 1923. urtean hil zen *Bakar-etxea* hartatik Zokoburu aldera dagoen golkoa (*bahía*) da; baina inoiz ez zuen aipatu bere liburu eta idazlanetan, bai, ordea, makina bat aldiz *Bidasoa*.

Armand Praviel-ek ere *La Costa de Plata y el País Vasco. El Bearne* (1926) liburuan, beti *Bidasoa* dakar eta 52-53. orrialdeetako argazkien azpikaldean *Bahía de Hendaya* bezala jartzen du, orain *Txingudi* dena. Inguru hauetan kokaturiko literatura lanek ere ez dakarte *Txingudirik*, bai, ordea, *Bidasoa*. Ikus ditzagun bestela Pierre Lhande euskaltzainak inguru hauetako kondairetan oinarriturik idatzi zituen bi eleberriak, lehena frantsesez, *Mirentchu* (1914) eta bigarrena euskaraz, *Yolanda* (1921); ez batean ez bestean ez du aipatzen *Txingudirik*, bai, ordea, zenbait aldiz *Bidassoa* edo *Bidasoa*. Eta klinika Irunen zuen Dr. Victoriano Juaristi donostiarrak, “Victor Ivan” izenordepean burutu zuen *Costa de Plata* (1928) eleberrian ere, ikus dezakegu hainbeste aldiz *Bidasoa* dakarrela, gainera, eleberri honen XV kapitulua bera “En el Bidasoa” deitzen da.

R. Gallop eta Ph. Veyrin idazleek, bata inglesa eta bestea saboiarra izanik, gure herria maite izateaz gainera lan interesgarriak idatzi zituzten. Adibidetzat har ditzagun: Rodney Gallop-en *Los Vascos* (1948), 1930ean ingeles argitaratu zuenaren itzulpena, eta Philippe Veyrin-en *Les Basques* (1947); zeintzuk elkarlanean burutu zuten *Pays Basque de France et d’Espagne* (1951). Liburu horietan maiz aipatzen dute *Bidassoa*, baina inoiz ere ez *Tchingudy* edo *Txingudirik*.

Nik dakidanez, horrekin ikustekorik duen izena, Frantziako katastroan, *Carte des Communes d’Hendaye et d’Urrugne* (Paris, 1866) deritzaionean dator lehen aldiz *Chingody* (= *Xingodi*, noski), Bidasoaren ertzean, orain Zokoburu den toki berean. Bere inguruko agertzen dira *La Bidassoa Rivière*, *Baie de Hendaye* eta *Ondarraizu* hondartza. Ikus Martin Izagirre Igiñizek argitaratu zuen *Cartografía antigua y paisajes del Bidasoa* (Irun, 1994) liburua 303. orrialdean datorren erreproduzioa. Baina, horren arabera, golko edo badia Hendaia zen eta *Xingodi* orain Zokoburu den Bidasoa ertza.

1925. urtean Hondarribian eratu ziren “Fiestas Euskaras” haietan argitaratu zen *Ciudad de Fuenterrabía, Programa de Fiestas Euskaras y Locales*, 3 al

13 Septiembre 1925 zeritzon liburuxkan Pio Barojak aurkeztu zuen “El Bidasoa” idazkian aipatzen du *Chingudy*; baina Bidasoaz hainbeste idatzi zuen idazle ospetsuarentzat, zalantzarik gabe, Hendaiako golko edo badia zen; ez ibaia ezta ere itsasadarra. Beraz, garbi zuen bertako izen orokorra *Bidasoa* zela. Liburuxka berean “Satarka”ren olerki bat zetorren, “Eusko lore eder” zeritzana, eta honela hasten zena: “*Bidasoa-ko lorea zera*”. Sakarka izenordea erabiltzen zuen Klaudio Sagartzazu hondarribiar olerkariak, *Txinpartak* (1922) liburu hartan, inoiz ez zuen egin *Txingudiren* aipamenik, baina Pio Barojari eskaini zion “Itzea” olerkiaren azken aurreko bertsoan, 83. orrialdean, hara zer zioen:

*Jauregi eder
Antziñakoan,
Gizon txit jakintsu bat bizi da.
Bidasoako
Txapelaundia,
Edeztizundari ezaguna.*

Gauza bera esan dezakegu *Intza begietan* (1957) liburuko olerkiez, “Ondarribia” zeritzon olerki sarituaren esaldi batean agertuko zigun: “Ain maite degun Bidasoa ibaia”; baina, hemen ere, *Txingudiren* aipamenik ez. Eta horren ondorean zetorren “Ama berbera” olerkia, 84. orrialdean, Bidasoz handikako anaia maiteei eskainia.

Luis de Urantz (Luis Rodriguez Gal) zenak *Lo que el río vio. Biografía del río Bidasoa* (1955) liburu bikainaren 6 eta 294. orrialdeetan dakar *bahía de Chingudy*, baina honek ere, Pio Barojak bezala, ez itsasadarrarentzat eta ez ibaiarentzat. Horiek argi eta garbi bereizten zekiten eta seguruenik Txingudi golkoaren lehen berriak izango dira, lehenagoko *Bahía de Hendayaren* lekua hartuz; baina hidronimotzat non eta zer den jakinaren gainean.

Bitaño (Nikolas Alzola Gerediaga) adiskideak *Atalak* (1967) zeritzan ipuin eta kontakizun liburuaren 88. orrialdean, *Bakar-etxea* eta Pierre Lotiren oroienez idaztean dakar honako esaldi hau: “Zenbat bidar egon ete zan Txingudi itsasadar oni begira Loti, Jaizkibel mendirantz bere itsas-gizon begiak, orain ni nagon moduan...”. Hemendik jaso zuen Ibon Sarasolak *Itsasadar* hitzaren adibideetariko bat bere *Euskal Hiztegia* (1996) bikainerako. Bitaño zenaren liburu horri, “Ataleri ataltxo bat” izenpean hitzaurrea egin nioenean, nik neuk ere pentsatzen nuen Txingudi itsasadarra zela. Izan ere, lehorraren barnekaldean jaio ginenok ez dakigu itsasadar eta *bahía* den golkoa behar bezala bereizten. Baina Hondarribian bizitzera etorri nintzenean eta bertako tokizenak aztertzen hasi, *estuario* eta *bahía* bereizten ikasteaz gainera, hondarribiar arrantzaleen artean egin nituen galderetatik jabetu nintzen gauza bat zela Txingudi golko (*bahía*) eta oso beste bat Bidasoa itsasadar (*estuarioa*) eta ibaia. Arrantzaleok badakite Txingudi, Hendaiaren partean, Gazteluzar ingurutik Zokobururakoa tarte hori dela.

Hondarribiar arrantzaleek ez ezik, adibidez, Maite Berruet Arbelaitzek 1995. urtean Irungo Udalerako burutu duen toponimia ikerketa sakonaren egikeran ere ez du aurkitu *Txingudi*. Nola arraio daiteke Plaiaundi eta bere inguruari *Txingudi* izena ematea?

Leonardo Urteagak *Guía sentimental del Bidasoa* (1976) liburuan, bere artikuluez gainera, Bidasoa eta bere inguruaz idatziak ziren artikulua bildumaz osatua da. Fausto Arozenaren idazki batek *Chingudi* du izenburuz, 26-29. orrialdeetan datorrenez, baina gero idazki guzian *Bidasoa* soil soilik erabiltzen du, eta idazkiaren barnean ezarririk duen Dario Regoyosen irudiak izenburuz azaltzen du *Bahía de Chingudi*. Ondotik Mourlane Michelena irundaroak berak ere aipatzen du *Txingudi*, baina kokapenez ez digu argi gehiegirik eskaintzen. Han bertan Koldo Mitxelenak Mourlane Michelenaoren oroitzapenez, gaztelerez idazten zuten euskotarrei buruz eskaintzen duenean argi dakar: “la desemboadura del Bidasoa” (100. or.). Ezin zen beste era batera izan *Vía ad Oiasso* etimologia proposatzen zuen hizkuntzalariarentzat. Baina, liburuan zehar nabarienez, ohartuko gara idazle batzuk, *Bidasoaren* izen bera hainbeste aldiz ez errepikatzearren edo *Txingudi* aipatuz ordezkatzeko zutela, sinonimo gisa; horiek dira literaturgintzan hartzen diren lizentziak. Baina horietako gehienek bazekiten bereizten, *Bidasoa* itsasadarra zela eta bere barnean *Txingudi* golkoa. Bestela, ondo pentsatuz, liburuak berak ez zuen eramango *Guía sentimental del Bidasoa* izenburutzat.

Nahasketa horrek gure historia eta kulturari ez dio onik egiten. Arkeologo, historiagile, zein hizkuntzalari edo geografi-kulturari begira, behar-beharrezko da zehaztasuna, bereziki lehenaren oroitzapenerako eta iker lanetarako. Horregatik iruditzen zait Euskaltzaindia bezalako erakunde batentzat legezko dela Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailari aditzera ematea, Txingudiko erreserba naturalaren ordezkari Bidasoako erreserba naturala jar dezatela. Gainera, aditzera eman, *Txingudirik* ez dela Euskal Autonomi Erkidegoaren barnean.

Era berean, Irun eta Hondarribiko udalei *Txingudiko urak / Aguas de Txingudi* izena duen ur-partzuergoari ere nolabaiteko aldakuntza eman diezaioten.

Behingoz argi eta garbi gelditu bedi: Antzinatik agiritan etengabe dator kigun *Bidasoa* dela era jatorra itsasadar eta ibaiarentzat. Aldiz, Bidasoaren barnean badela Hendaia partean Gazteluzartik Zokoburu aldera dagoen golko bat *Txingudi* izena duena, baina agiri zaharretan inoiz agertzen ez dena.

RESUMEN

El presente trabajo trata de dar un toque de atención sobre *Bidasoa - Txingudi*, porque actualmente se está creando una desgraciada confusión en perjuicio de la investigación en el campo de la cultura general y que afecta principalmente a la arqueología, la historia, la lingüística y la geografía.

Bidasoa procede desde la antigüedad, *Vía ad Oiasso*, para designar tanto al estuario como a la ría que discurre desde Navarra hasta su desembocadura en el Atlántico, según se atestigua a través de la Historia. Mientras que *Txingudi* aparece por vez primera en el catastro de Francia en 1866, en forma de *Chingody* (que en euskara correspondería a *Xingodi*), para denominar lo que hoy se conoce por *Sokoburu (Zokoburu)*. Actualmente, *Txingudi* ha pasado a ocupar lo que hasta primeros de siglo era la *Bahía de Hendaia*.

Para aclarar y al propio tiempo tratar de poner orden sobre el asunto, la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, ha reunido la documentación necesaria que aporta testimonios de geógrafos, historiadores y escritores, desde la antigüedad hasta nuestros días.

Durante el presente siglo se empezó a denominar *Txingudi* a la bahía de Hendaia y desde la década del 70 algunos escritores vienen confundiendo *Bidasoa* con *Txingudi*. Tal vez de ahí, la Consejería de Urbanismo, Vivienda y Medioambiente del Gobierno Vasco, al crear la reserva natural, ha hecho un uso indebido con extender la denominación *Txingudi* al entorno de Plaiaundi. Asimismo los ayuntamientos de Irun y Hondarribia con la creación de *Aguas de Txingudi* a las procedentes de Endara erreka.

Desde el punto de vista lingüístico y arqueológico constituyen errores que se deberían subsanar; además perjudican a nuestra memoria histórica y, por consiguiente, a la cultura en general.

LABURPENEA

Lan honen bidez, gaur egun *Bidasoa - Txingudi* izenen nahasketak kulturari orokorki eta ikerketari bereziki dakarkion kalteaz aditzera ematen da, zeren harrigarria baderitzagu ere, besteak beste, zoritxarrez ikerkuntzan arkeologia, historia, hizkuntzalaritza eta geografia sailen kaltetan dihoa nahasketa hau.

Bidasoa antzinatik datorkigu, *Via ad Oiasso*-tik, noski, itsasadar zein Nafarroatik datorren ibaia itsasadarraren ahoa Atlantiko uretan sartu arteraino, historiako lekukotasunak erakusten digutenez. Aldiz, *Txingudi*, Frantziako katas-troan aurkitzen da lehenengoz *Chingody (Xingodi)* bezala 1866. urtean, bertan markaturik datorrenaren arabera orain Zokoburu den toki berean. Baina, gure mende honen lehen partetik, *Txingudik*, *Hendaiako golko* edo *badia* zenaren lekua hartu du.

Gai hori argitzeko eta aldi berean ahalik egokien zuzenketa bideratzeko asmoz, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak hainbat beharrezko ageri bildu ditu, non datozen geografilari, historiagile eta idazleen lekukotasunak antzinatik gure egunotara arte.

Mende honen lehen partean hasi ziren Hendaiako golkoari *Txingudi* deitzen eta 70garren hamarkadatik idazle batzuek nahasten zituzten *Bidasoa* eta *Txingudi*. Behar bada hortik hartu zuen Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailak, natur erreserba Plaiiaundi eta bere inguruan sortzean, *Txingudi* izena. Irun eta Hondarribiko udalek, ordea, Endara erreka urak hartzean partzuergo berria sortu zuten *Txingudiko Urak* izena jarritz.

Linguistika eta arkeologia ikuspegitik huts larria deritzagu, zuzendu beharrezkoa, noski, zeren bestela kalte egiten baitio gure oroitzapenezko historiari eta, aldi berean, kulturari berari orokorki.